

35 urte pilotaren hitzorduari eusten

Asteazkenero, ia hutsik egin gabe, badira zenbait pilotari ohi, Ermuko Batzokiko frontoian, pilotarekin hitzordua izaten dutenak.

Bi txandatan banatzen dira. Batzuk arratsaldeko 7etatik 8etara. Talde horrek 'Aspe' izena hartzen du eta 8etatik 9etara aritzen dena, berriz, 'Asegarce' taldea da. 'Aspe' eta 'Asegarce' rekin solasaldia izan dugu.

Usadio hau aspaldikoa da. 35 urte izango dira Errota Abarrategi, Ramon Unanue, 'Pitxarra' eta Jose Luis Aranburu 'Bengo' ekimen horrekin hasi zirela. "Garai haietan 17 urte inguru izango nituen eta gure nagusia Errota zena zen", gaineratzen du Pitxarrak. Urteak joan eta etorri, aldatu diren bakarrak pilotariak izan dira, batzuk utzi eta berriak ere sartu baitira taldean. Frontoia da berriro ez den bakarra. 7etatik 8etarako taldean, hasierako urte haietatik gaur egun arte Rikardo Txurruka, Maximino Ormaetxea, Urko Lugarizaristi, Roberto Hernandez eta ordezkio lanak egiten, Elgetako Alex Aranzabal eta Jose Alberto Arrate gehitu zaizkie. 30 edo 35 tantora ordubeteko lehia gogorra jokatzen dute "ezer barkatu gabe. Izan ere, aste batean partidua irabazi duen bikoteak, hurrengo astean elasti-

ko gorritz jokatzen du eta elastiko urdinez besteak", dio Maximok. Lehiaren ostean, afaltzeko txanda hartzen dute eta hasiera hasieratik Iñaki Agirregomezkorta izan dute sukaldari fina. Hasierako urteetan Ermuko Zarautarran afaltzen zuten eta azkeneko 15 urteetan Berrizko Ganeko Etxen afaltzen dute. "Sake onekoak dira honek, batik bat Urko", azpimarratzen du Iñaki Agirregomezkorta sukaldariak. Afaldu bakarrik ez, ondoren musean ere aritzeko tarteak izaten dute.

Pilota frantsesak

Punpako pilotak erabiltzen dituzte. 'Pilota frantsesak' deiturikoak. Ez dira gogorregiak, baina biziak dira. 102 gramo inguruko pisua daukate. "Eskuz jokatzeak aproposak. Errebotera iristen lanak" ematen dituzten horietakoak direla dio Urkok.

Zenbait urtez pilotari ohien binakako txapelketa ere antolatu zuten Batzokian bertan. Andueza, Salbidea, eta Ansotegi izan ziren besteak beste. 6-7 urte daramatzate txapelketarik antolatu gabe. Omenaldiek izan dute tarterik, Errota eta Ramon Unanuek jasotakoak esaterako.

Ermutik kanpo pilotari ohientzako makina bat txapelketa antolatzen dira. Galdakao, Mendexa, Lekeitioko eta Abadiñoko trinketa adibidez. Horietan jokatzen segitzen dute 'Pitxarra'k eta Urkok eta txapelen bat eskuratu izan dute. "Asteroko zita hau sakratua da. Ezin da hutsik egin", gaineratzen du Sallabenten jaio baina azken urteetan Ondarroan bizi den Roberto Hernandezek.

Beste taldea, 'Asegarce'ko taldea, 8etan elkartzen da eta Ermuko pilotari ohiez gain, kanpotik etorritako batzuk ere elkartzen dira. Josu Gallastegi, Juan Mari Aranburu 'Motxu', Alvaro Gallastegi eta Iñigo Salbidea dira beste batzuen artean talde honetan aritzen direnak eta makina bat urte eman dituzte bertan baita ere Pedro Bildosolak eta Valentín Olabek.

Ermuko herriak garai batean pilota munduan izan zuen indarra eta ospea gogoratu eta gaur egun pilotaren egoera "kezkagarria" aipatuz agurtzen ditugu pilotariak. Era berean, beraien asteazkeneko zitari eusteko grinak luzaro segituko duenaren itxaropenez.

Asier Ibaibarriaga



T XALAPARTA
ABERNA

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

**Erdikokale 13
(Ermua)**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK
943 030 299**

komunitateak
asegurua

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Quetzal

Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!

**Goienkale 9 - ERMUA
943170065**